OIARTZUNGO
UDALA

**Espedientearen kodea:** 2023KO170001
**Espedientearen gaia**: Enpresa txiki eta ertainetan euskararen erabilera sustatzeko "LANIN" egitasmoaren aholkularitza zerbitzu-kontratua
**Titularra**: Oiartzungo Udala

---

**Enpresa txiki eta ertainetan euskararen erabilera sustatzeko "LANIN" egitasmoa:**

**Enpresei aholkularitza eta normalizazio zerbitzua kontratatzeko baldintza teknikoen agiria**

## 1. KONTRATUAREN XEDEA

Dokumentu honen xedea Oiartzungo enpresa txiki eta ertainetan, euskararen erabileran aurrera egiteko 2016tik martxan dagoen "LANIN" egitasmoaren baitan, enpresei aholkularitza eta normalizazio zerbitzua kontratatzeko baldintza teknikoak ezartzea da.

Plegu hauetan zehaztutako baldintzak oinarrizko ezaugarriak dira, eta beraz, esleipendunak guztiak bete behar ditu.

## 2. IRISMENA

Oiartzungo enpresa txiki eta ertainetan, euskararen erabilera sustatzeko proposatuko den egitasmoaren baitan, zerbitzua eskaini nahi den unibertsoa Oiartzungo enpresa txiki eta ertainena da, 50 langile arteko enpresak, alegia.

## 3. EGIN BEHARREKO LANAK

Oiartzungo enpresa txiki eta ertainetan euskararen erabilera sustatzeko LANIN egitasmoaren inplementaziorako zerbitzuaren jarraipena diseinatu eta gauzatu beharko du esleipendun enpresak. Enpresa esleipendunak, zehaztutako zerbitzuak Oiartzungo enpresa txiki eta ertainetan eskainiko ditu. Egitasmoan parte hartuko duten enpresen atzipena enpresa esleipendunaren lana izango da, Oiartzungo Udaleko Hizkuntz Normalizaziorako Sailaren laguntzarekin.

Iraupen aldetik etenik gabeko zerbitzu iraunkorrak dira eskainiko direnak. Honetarako enpresa esleipendunak lan hauek egin beharko ditu:

- Enpresen atzipena: enpresak bisitatu eta egitasmora erakartzeko harremanak bideratzea.
- Oinarrizko aholkularitza eta informazio zerbitzua urte osoan zehar. Hizkuntza aholkularitza pertsonalizatua egiteko enpresa bakoitzari berariaz eskain dakiokeen orduen kopurua mugatua da: 10 ordu.
- Itzulpen eta zuzenketa zerbitzua enpresei urte osoan zehar. Urtean itzuli edo zuzendu daitekeen karaktere kopurua mugatua da: Itzulpena: ES->EU: urtean 7.200 karaktere / EU->ES: urtean 10.800 karaktere / Zuzenketa: urtean 14.400 karaktere. Karaktereak hutsuneak barne kontatuko dira. Muga gabeko salbuespena: errotuluak.
- Euskararen erabilera normalizatzeko Oiartzungo Udalak ematen dituen dirulaguntzak kudeatzeko laguntza enpresei: errotuluak, weba, Puntueus domeinua, TicketBai aplikazioa, dokumentuak, makinak eta aplikazioak

ESKUc21ef5c0-4898-46e9-b8bd-69ca452a951b

- Euskara ikasteko eta Mintzapraktikarako taldeak osatzeko sustapen eta kudeaketa lanak.
- Lantaldeak sentiberatzeko saioak enpresei.
- Udalaren Webgunearen LANIN atalaren kudeaketa.
- Datu-basea osatu eta eguneratzea (zein enpresekin egin diren kontaktuak, bakoitzarekin gauzatu diren normalizazio ekintzak…).
- Oiartzungo Udalak, bere kabuz edo beste erakunde batzuekin (Oarsoaldea Garapen Agentzia, UEMA, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Kontseilua…) elkarlanean, arlo honetan martxan jarri ditzakeen egitasmo berrietako ekintzak gauzatzea.
- Egitasmoa gauzatzeko beharrezko izango diren baliabideak, ekimen berriak… proposatzea.
- Urte amaieran urteko memoria eta hurrengo urteko kudeaketa plana aurkeztea. Memoriarekin batera, eskuartean izan diren dokumentuak eta euskarriak paperean eta formatu digitalean (teknikoki aukera dagoen guztietan) Hizkuntz Normalizaziorako Sailaren eskura jarriko dira

## 4. ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA.

Kontratatutako egitasmoen zuzendaritza eta ikuskapena udal Hizkuntz Normalizaziorako Sailak burutuko du. Hori horrela delarik, esleipendunak behar beste erraztasun emango dio udal Hizkuntz Normalizaziorako Sailari aipatu zuzendaritza eta ikuskapena egin ahal izan ditzan.

Kontratua indarrean dagoen epean honako konpromisoak hartzen ditu Oiartzungo Udalak:

a.- Kontratatutako zerbitzuen funtzionamendu egoki baterako kontratistak behar dituen aholkuak ematea.

b.- Lanen zuzendaritza eta kontrola eramatea, Hizkuntz Normalizaziorako Sailaren bitartez.

c.- Egitasmoa gauzatzeko udalak egoki ikusten dituen material eta euskarriak (eskuorriak, kartelak…), zerbitzua emango duen enpresaren eskura jartzea.

## 5. ESPERIENTZIA, GIZA BALIABIDEAK eta HIZKUNTZA

Esleipendunak beharrezkoak diren giza baliabideak jarri beharko ditu plegu honetan zehazten diren lan guztiak betetzeko, eta orokorrean aholkularitza zerbitzua modu egokian emateko.

Gutxieneko dedikazioa: 2 urteotan astean batezbesteko 10 orduko zerbitzua eskainiko da. Presentzialki 22 hilabetez (2 hilabeteko oporraldiaren etena kontuan hartuta). Beraz, kontratua hasten denetik bukatzen den arte 880 ordu, gutxienez.

Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntz jarduera arautzeko planen arabera jokatuko du:

**Hizkuntza Gaitasuna:** Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza-gaitasunei dagokionez.

Kontratuak herritarrekin, zein administrazioarekin, ahozko zein idatzizko harremana izatea eskatzen duenez, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila eskatuko da.

ESKUc21ef5c0-4898-46e9-b8bd-69ca452a951b

OIARTZUNGO UDALA

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza-gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza-gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Oiartzunen, sinaduraren egunean

Elektrinikoki sinatua

Hizkuntz Normalizaziorako Teknikaria

Aitziber Arnaiz Garmendia

Nork Sinatua / Firmado por: AITZIBER ARNAIZ GARMENDIA - 34109689E
2023/02/28 12:35:39

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUc21ef5c0-4898-46e9-b8bd-69ca452a951b**

*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***